

BALOREZKO PROPOSAMENA


Zerbitzu hau gizartean eman den behar izan batetik hasita sortu dugu. Hain zuzen ere, gizarte honetan eskolaz kanpoko ekintzak haurrentzat bakarrik zuzenduta daude. Ez dugu familia eta hurrek elkar parte hartzeko espaziorik ezagutzen. Hori dela eta, uste dugu egunerokotasunean helduek eta hurrek errutina desberdinak dituztela eta gure zerbitzu honi esker errutina horietako tarte bat partekatze aukera eman nahi dugu, horrela bi belaunaldien arteko harremana sustatuz.

Gure asmoa gaur egun eskaintzen ez den zerbitzu bat sortzean datza, hau da, berrikuntza bat da. Leku fisiko batean jardungo dugu, nahiz eta guk lortu nahi duguna ez den ekintza batean soilik geldituko, horretatik haratago joango da. Prestazioari dagokionez, eskainiko dugun lokal honetan material eta premia desberdinak kontuan izanda, ekintza desberdinak eskainiko dira.

Pertsonalizazioari dagokionez, ekintza bakoitza familia batentzat zuzentzea ezinezkoa ikusten dugu, azken finean, gure helburuetako bat familien arteko harremana sustatzea delako. Hala ere, prestatutako ekintzak haur eta familien beharren arabera moldatzeko aukera egongo da. Halaber, euskarari garrantzi handia ematen diogu, hortaz, gure zerbitzuko ekintza guztien helburuetako bat euskara bultzatzea izango da.

Horretaz gain, aipatu behar da zerbitzu hau eskolaz kanpoko ekintzaz gain beste ekintza gehigarri batzuk izango dituela. Hain zuzen ere, ikastetxeetan bertan ere hiru hilebetean behin zerbitzua eskainiko dugu. Horrela, gure espazio fisikora hurbiltzeko aukera ez duten familiek ikastetxean bertan parte hartzeko aukera izango dute.

Diseinuari dagokionez, gure espazio fisikoaren antolaketa hurrengo izango da: Eskuinako aldean sarrera egongo da, eta bertan lokalera sartzen garenean alde batean



komuna egongo da eta bestean sarrera txiki bat, bulego funtzioa izango duena. Hurrengo espazioa, espazioa zabal bat izango da eta bertan urtean zehar egingo diren ekintzak egingo dira. Irudian gure lokalaren diseinua ikusi daiteke.



Gure enpresaren izena *limahana* da, baina zehazki zerbitzu instalazio honek *fametxe* izena du. Hori dela eta bien arteko nahastea egitea ideia onena eta erakargarriena dela uste dugu. Horrela, gure marka ikusten duten bakoitzean, gure zerbitzuarekin zuzen-zuzenean erlazionatuko dute.



Prezio hauek kontuan izan ondoren, deskontu eta irizpide desberdinak jarraituko dira. Gure lokala dagoen herrian erroldatuta baldin bazaude prezioaren %5eko deskontua izango du familia bakoitzak. Aldiz, familia ugariaren kasuaetan %5eko deskontua izango du.

Bestalde, zerbitzuak aurrera jarrai dezan eta bertako arriskuak murrizteko bi hiletik behin ekintzak aldatzen joatea aukerarik onena dela uste dugu. Horrela, gure bezeroen bi hiletik behin ekintza berriak egiteko eta ikasteko aukera izango dute.

Gure instalazioetara hurbiltzeko aukera edozeinek izango du, izan ere denek aukera berdinak dituzte. Hori gutxi izango balitz, gure enpresa beste herri batzuetako bezeroak etortzen baldi badira proiektua edo zerbitzua errezago emango dugu ezagutzera.

Erabilgarritasunari dagokionez, gure zerbitzuan oinarrituta, leku egoki batean egotea funtsezkoa da, bezero guztiek irisgarritasun egokia eta ona izan dezaten. Horregatik, hainbat faktore kontuan izan behar ditugu; adibidez, jendeari ondo datorkion leku batean egotea, giro egokia eta zerbitzua gune ezagun batean kokatuta egotea. Jendea elkartera hurbildu ahal izateko, erakargarria izatea ere komeni da.

LABURBILDUZ:

Prestazioa: Material eta premia desberdinak eskaini

Pertsonalizazioa: Helburua familien arteko harremana sustatzea eta euskara bultzatzea

Diseinua: Espazio zabala

Prezioa: Deskontuan irizpideen arabera